

**ARGIA'REN  
IDAZTIAK**

LIC. PEDRO ANASAGASTI

Gazteiz'ko Katedral'ko Eleiza  
«Magister Ceremoniarum»'ek erderaz.

150

# 1926'n Urteko Jubileum

Zer dan eta nola irabazi diteken

ELIZAKO SARTU-ATERAETAKO OTOITZAKIN

M. L. Gazteiz'ko *Seminarium*

*Conciliare'ko Erakusleak euskeraz.*



DONOSTIA'n

Iñaki Deuna'ren Irañkolan.—Garibai, 28.

—  
1926



A.T.V.  
1933

RECEIVED  
LIBRARY

M-6341

R-2436

A.T.U.  
1933



## Aurten Jubileoa degula

*Servatoris Nostris Jesuchristi* asten dan Bularen bitartez Efoma'ko Aita XI Pio'k 1925'gn. urteko Abendua'ren 25'ean, mundu guztira zabaldu nai izan digu urte ofetan Efoma'n bestetan ezin irabazi zitekean Jubileoa.

Bula onen bitartez, beraz, 1926'gn. urte onetan beren pekatuen damuz Aita Santuak agindutakoa egiten duten guztiak «pekatu egiñez galdutako grazi ta irabazi guztiak beñiz berenganatu ta Satanas'en uztarpe negargañetik atera ta Jaungoikoaren Semek ekañitako askatasuna iritxiko dute ta Jesukristoren neufigabeko irabaziakin eta Ama Birjiña'k eta Santuak egindakoeekin, beren pekatu guztien neke-zoña atera, ordaindu ta kitatuko dute». (Constit. *Infinita Dei*, 29 Maji 1924.)

Egokiera au dala-ta, kristau guztiak prestatzeko agintzen die Aita Santuak mundu guztiko Obispo Jaun guztiai; ondo prestatzeko, Mixio Santuen bitartez batez ere, ta San Ignazio'ren Ejerzizioak egiñaz eta sermoi egoki batzuek entzunaz..... ondo-ondo prestatu ta obeto ta efazago Jubileoa irabaziko dutela-ta.

Beragatik on izango da oso gaxorik ez dauden kristau guztiak al duten prestaerarik onena egitea eta ofetarako 1926'gn. urte onetako **Jubileo Aundia** irabazteko egin bear diran gauza guztien beñi ondo ikastea, Barkapen-urte onetan Efoma'ko Aitak ematen dizkien beste zeinbait mesede ta eskubideren jabe ere egin ditezen, bear edo on ba'dute.



---

---

# LENENGO ZATIA

---

## Jubileoaren asiera

### Israel'dafen jubileoa.

«Befogeamargafen urtea jai egingo dezu—esan zion Jaunak Moises'eri—; urte ori jubileo-urtea dala eman guztiai aditzera, zofak barkatu ta galdutakoak eskuratzeko garaia dala guztiak jakin dezaten».

Jubileo au israeldafak zintzo egin izan zuten beti, alik eta Babilonia'ra eramán zituzten arte.

Urte artan ez zan lanik egiten; eta gauza guztiak antziña zituzten jabeen eskuetara biurtzen ziran, iñorenpekoak eta presoak askaturik gelditzen ziran, zofak eta ematekoak, befiz, barkatu ta kito.

### Kristau-jubileoa.

Lenengo kristauak, len judeo izanak batez ere, gogo aundiz jai egiten zuten befogeamargafen urteetan, beren antziñako asabak ere ala egin oi zutelako nunbait.

Gergago, kristaurik geienak len jentil izanak bait-ziran, antziñako jentilak eun urtetik bein jokuak, apustuak eta demak egin oi zituzten bezela, berak ere atsegia izaten zuten eungafen urtearen saferan jai aundiak egitea: gure Ama Elizak, befiz, oitura oiek kristautzearik, on izango zala eritzi berak ere eun urtetik bein bere kutxak zabaldu eta bere mendekoen artean mesede ta grazi asko banatzea erabaki zuan. VIII Bonifazio izan zan batez ere, lenengo-lenengo jubileoari ots-aundia eman ziona. VI Klemente'k eunetik-eunera-ordez befogeamar urtetik befogeamar urtera egitea erabaki zuan; eta II Paulo'k befiz ogeitabostetik ogeitabostera.

Geroago, befiz, VI Alejandro izan zan orain egiten ditugun elizkizun eder afigafiak jubileoari ezafi zizkiona: Aita Santu arek berak erabaki zuan Eñoman egin-da ufengo urtean jubileo bera mundu guztian egitea.

### Jubileoaren alderdi onak.

Gertatu izan dana ikustea naikoa da Jubileoaren ondorengo edefak nolakoak izaten diran jakiteko. XIV Benedikto'k dionez, jubileo-urtea «graziazko urtea da, pekatuen penitentzia egin eta gogoz dana beñiturik gelditzeko urtea, Jaunarekin pakeak egiteko urtea, ejemplo onak emateko urtea, itz batean esateko, *Urte Santua*».

Oña zer geiago dion gure XI Pio'k: «Gizon bakoitza gaizto izana gizarte guztiaren kaltean dan bezela, ala berean gizon bakoitza obeago ta santuagotzeak ere (eta bestetarako ez da Jubileoa) gizarte guztia ondu ta Jesukristorekin gero ta batago egiteko on izan bear du».

Orixe diote gure etsaiak ere: 1775'gn. urtean D'Alambert gaiztoak zionez, orduko Jubileoa zalako ogei bat urtez atzerago egin zan Prantzi'ko Eñeboluzio edo Matxinada ikaragafia; eta Voltaire galgafia oña zer zion: «Au bezelako beste Jubileo bat naikoa da gure Pilosopi beña auts biurtzeko».

### Jubileoa ta Asis'ko S. Franzisko' ren eta San Luis Gontzagatafaren eun-urte-mugak.

Jubileoa eta San Prantzisko'ren jaiotzako zazpigarfen eunur-tamuga ta S. Luis santu egindako bigarfen, aurten irurak batean datoz. Uste du zin-zinñetan gure Aita Santu XI Pio'k ontarte aundiak etofiko zaizkiela kristau guztiai iru gauzok batean erortze onetatik.

Joan dan Abendu'ko Kardenal-Batzafean onela zion: «Pozik asko ematen digu biotzean, aurtengo Jubileoan mundu guztian egingo diran otoitz edefen eta banatuko diran grazi guztien bitarteko ta beñi-emale Asis'ko Serapin gartsua izargo dala gogora

itzeak. Izan al-diteke ba, izan ere, bere eunurtemuga bear bezela egiteko ezer, mundu guztia penitentziaz, pakez eta santutasunez dana befitzea bezelakorik? Penitentziazkoa, pakezkoa ta santutasunezkoa baitzan Prantzisko Santuaren bizitza guztia: eta ofetarakoxe sortuak bait-dira Jubileoak ere. Ofela, ba, alkañi asko lagunduko dietela uste det bi gertakizun eder oiek, eta bestela baño askoz ugariagoak izango dirala aurten Jaungoikoak animetan eta efietan ixuriko dituan grazi ta ontarteak ».

Orixe bera esan zien Eñoma'ko Sermoilari garizumatafai ere eta gero onela jañaitu zuan: « Beste eunurtemuga ere ba'degu » aurten: Luis Gontzaga Santu egin zutenekoa. Eta ederki osatzen du urtamuga onek Prantzisko Santuarena; ez prantziskotafen izaerak gai onetan iñori zofik diolako; bere gauzik ezagunenak penitentzia ta pakea ta santutasuna diralako baizik ».

« Oñ zer nabarmentzen dan geiena San Luis'en urtamuga » onetan: Biziera garbi-garbi baten txuritasun añaña, Jesus maitearen Biotzari poza ematen beti bizi naia, lili-artean bazkatzen dan Bildots Eñugabea zaitzen beti ibili beaña; itz batean, jentil-antzeko gure mundu galdu onek ain bear duan asnas bero, lufun gozo ta garbitasunezko eñañu bizi-bizia: oietxek dira Luis Santuaren exaungañiak. Garbitasuna, bai: otoitzaren bitartez ez bada ezin iraun dezakean garbitasuna; nork bere buruari gogor egiñaz eta munduak añañean ipintzen dizkigun txorakeriak baztartuaz ez bada laister ondatzen dan garbitasuna. Baña garbitasun onek ez zion batere kalterik egiten lagun urkoen goi-maitasunari Luis Santuaren biotz edeñañean: zan bezain garbi ta txuri lagun urkoenganako karidadearen besoetan igo zan zerura aingeru maitagafi ura » (1).

(1) Osservatore Romano, 17 Febr. 1926.

# I

## 1926'gn. urteko Jubileo nolakoa dan.

1. *Noiz asi ta noiz bukatzen da?* 1925'gn. Urte-zafetako afatsaldeko ordu bietan asi zan eta 1926'gn. Urte-zafetako afatseko amabietan bukatuko da.

Efoma'ko Urte Santuaren ondotik egin oi diran oraindañoko Jubileoak sei ilabetez gora iraun ez ba'dute ere, aurtengoak urte bete iraungo du. Aita Santuak berak esan duanez, orain, Europa'ko gefatean ibili ziran eñialdeetan, len baño apaiz gutxiago dagolako da luzapide au.

2. *Bestelako Barkapen osoak ez duten gauzarik bai al-du Jubileoak?*

Ematen danari begiratuzkero ez: biak barkapen osoak dira ta barkapen osoa Elizak eman dezaken aundiena da; Jubileoko barkapena ez da bestelako barkapen osoa baño bat ere aundiago. Bañan ematen zaionari ta irabazteko eñeztasunari begiratuzkero, aundiagoa da Jubileoaren eñeztasuna, bestelakoena baño.

Onatx zergatik. Jubileoetan ordaingafi geiago eskeintzen diogu gure pekatuen ordez Jaungoikoari: Elizako sartu-aterak, guztien arteko ta nork berak egindako otoitzak, elizan ta kaleetan kristauok degun sinismena aitortzen ibiltzea, Sakramentuak artzea etab.; zenbat egiteko oiek edefago, ikusgafiago eta safiroago eginak ainbat eta eñezago izan bear barkapena irabaztea ere.

Jubileo-urtea, gañera, otoitz eta grazi urtea da. Lur-zabal guztian egiñen diran eskariak aurtan iñoiz ez bezela erakartzen ditu damuz dauden biotzen gañera zeruko efuki, grazi ta laguntzazko eudi gozo-ugariak.

Urte onetan, aizkenik, edozein aitorzalek barkatu ditzake, bestela Obispo Jaunak eta Obispo-ordekoak bakafik barkatzen dituzten pekatu batzuek; baita Jaungoikoari egindako eskeñi ta aginduak aldatu ta beste zeinbat olako gauza geiago egin ere.

Oñegatik Jaungoikoarekin pakean jañi ta bañengo kezkek kentzeko ta biotza lasai-jartzeko au bezelako garairik ez da Elizan.



3. *Nork irabazi dezake 1926'gn. urteko Jubileoa?*

Katoliko guztiak: baita 1925'gn. urtean Eřoma'ra joan-da beste bein edo bitan irabazi dutenak ere.

4. *1926'gn. Urte onetan irabazi al-diteke Julileokoaz beste induljentzi edo barkapenik?*

Lengo urte ortan Eřoma'ko Urte Santuak iraun duan guztian ezin irabazi zitezkean bizientzako diran induljentzirik geienak; Aurten ordea, guztiak irabazi ditezke.

5. *Nun irabazi diteke Jubileoa?*

Nun-nai, Eřoma'n eta ango bazteretan ez beste leku guztietan.

Eřoma'ko Bařutiko eleizetan ez diteke irabazi, bařio Eřoma'ko Bařutian ez beste guztietan irabazi diteke. Eřoma'tařak berak ere beste Bařutietan irabazi dezakete, gařerako bear diran guztiak egiñezkero.

6. *Zenbat aldiz irabazi diteke aurtengo Jubileoa?*

BITAN: Lenengoan, norberetzak edo bestela, naiago izanez-kero, Garbitegiko animentzat.

Bigařenean, garbitegiko animentzat bakařik.

*Ez utzi beaz, urte au Jubileoa bi aldiz irabazi gabe iga-rotzen.*

## II

### Zer egin bear dan Jubileoa irabazteko.

7. Ona zer egin bear dan Aita Santuaren aginduz aurtengo Jubileoa irabazteko.

1'go. AITORKETA on bat. Ez da asko Pazkuazkoa; beste bat bear da. Ez da asko Jaungoikoaren grazian, pekaturik gabe ego-tea; pekatu lařirikan gabe dagonak ere aitortu bear du Jubileo irabazteko.

*Aitorketa au Jubileoa irabazteko asmoz egin bear da (1).*

Ez da nai-ta-naiezkoa asmo ori aitortzean bertan izan beařa; egun batzuek lenagotik izana naikoa da, gero aldatu edo galtzen ez ba'da.

(1) C. I. C. can. 931, 3.º; Creusen, L'extensión du jubilé en 1926, 11, 5., etc.

2'gn. Jaunaren grazian egindako JAUNARTZE on bat. Ez da naikoa Pazkuazkoa, beste bat bear da; asko izango da, ofatik, Elizakoz egiten dana (1).

Jubileorako egiten dan Jaunartzea on da San Jose'ren eta San Prantzisko'ren eta San Luis'en Igandeak egiteko ere. Pazkuazkoa bakafik da Jubileorako asko ez dana.

Aitortu ta jaunartu dezake nork bere efi edo Eleiz-Bafutian eta elizako sartu-aterak bestean egin; baita bestean aitortu ta jaunartu eta gerobere sartu-aterak egin ere. Aratik Elizan, sartu-ateratan, egiten diran lekuko Obispo Jaunak agintzen duan eran ibili bearko da beti.

3'gn. BOST EGUNETAN, egun bakoitzean LAU ELIZATAN sartu-atera bana egin bear dira. Lau elizatatik bat efiko *elizarik nagusiena* izango da; gañerako irurak beste edozein, efiko apaiz-nagusiak agintzen duten bezela.

Obispo Jauna dagon erian, nagusiena Katedrala da.

8. *Zenbat sartu-atera ta nola egin bear diran.*

a) Sartu aterak BOST EGUNETAN egin bear dira: egun oiek, naiz, alkañen ondotikoak izan ditezke, naiz bata bestearen-gandik banatuak; bost egun oietako bakoitzean LAU SARTU-ATERA egin bear dira lau elizetan, eliza BAKOITZEAN BAT.

Nork bere gisa egiten dituan sartu-ateratan, berak nai dituan bost egun berezi edo aukeratu ditzake, baita egun oien artean berak nai dituan bitarteak utzi ere.

Efiren batean bear aña elizarik ez badago, Obispo Jaunak edo bere Ordekoak erabaki dezake lau baño eliza gutxiagotan eta bear ba'da bat bakañean ere sartu-atera guztiak egitea.

1900'gn. urteko Jubileoan lau elizatan amabost egunez sartu-aterak egin bear izan ziran: guzitara 60 sartu-atera; aurtan befiz, XI Pio'k efuki aundiz, bost egunetan egiteko agindu digu: guzitara 20 sartu-atera.

(1) Const. *Si unquam*, Jul. 1924.

b) Bestelako beahez egiten diran sartu-aterak ez dira Jubileo-  
rako naikoa.

Beraz, jaietako beahezko Meza, naiz Kanonigoen eta beste  
zeinbait praileen beahezko korura joatea, ez da Jubileoko sartu-  
ateratarako naikoa.

Ala ere, ofela elizara edo korura joan danak, bere beahezko  
eginkizuna amaitzean, berealaxe, elizatik irten gabe, egin dezake  
bere sartu-aterako otoitz-aldia ta besterik gake egiña dauka Ju-  
bileoko sartu-atera.

c) Egun bati dagozkion sartu-aterak, naiz batzuek, naiz guz-  
tiak, *nai duanak* auferatu ditzake ta egin aufferko eguneko eguer-  
diazkero nai duanean.

Baita *nai izanezkero*, *gaurko* sartu-aterak egin ondoren,  
eguerdia igaroa baldin ba'da bigarkoak egiten ere asi diteke.

Ona ADIGARI bat:

Norbaitek egoki izan dezake ilaren 18'an asi ta 21'ean sartu-  
aterak bukatzea. Lau egun besterik ez du eta sartu-aterak egite-  
ko bost bear: ez du gañera egunero elizan ibiltzerik: ona zer  
egin dezakean:

18'an. *Goizetik* lau elizatan LENENGO EGUNARI dagozkion  
sartu-aterak egin.

*Aratsaldean* BIGAREN EGUNEKOAK, 19'ari dagozkionak.

19'an. Ats egin, etxean egon.

20'an. *Goizetik*, lau elizatan beti bezela, IRUGAREN EGU-  
NEKOAK egin.

*Aratsaldean* LAUGAREN EGUNEKOAK, 21'i dagozkionak.

21'ean. *Goizean* etxean egon eta *aratsaldean* BOSTGAREN  
EGUNEKOAK (azkenak) 22'ari dagozkionak osatu ta kiño.

Sartu-aterak auferatze oni *elizako egunarena* deritzaio (1).

9. *Elizako sartu-atera guztiak asitako erian bertan bukatu  
bear al dira?*

Ez da sartu-atera guztiak asitako erian bertan bukatu bearik.

Nor-bera bizi dan erian batzuek egin-da gero, andik beste  
nunbaitera joan beafa gertatzen zaionak, dijoan leku befian (naiz  
beste Obispaduren betekoa izan, eta naiz egun gutxitarakoan egon)

(1) Eleizan sartu-ateratzetarako eguna izan diteke naiz gauerditik gauerdia-  
rañokoa naiz Eleizaren eraz egun bertako eguerditik biaramoneko gauerdia-  
rañokoa. (Kan. 923.)

jañaitu dezake asitako sartu-aterak egiten, bañan beti ere bertako Obispoak aukeratutako Elizetan.

10. *Sartu-aterak Jaunaren grazian egin bear al-dira?*

Ez da nai-ta-naiezkoa sartu-aterak Jaunaren grazian egin beafa; obe, bai; naikoa da azkeneko egitekoa Jaunaren grazian egitea.

Urte onen bafuan Jubileo-aitorketa egiteko asmoa artu dutenak, asi ditezke eliz sartu-aterak egiten, naiz oraindik aitorketa egin gabea izan.

11. Ez da naita-naiezkoa sartu-ateratan oñez ibiltzea; bakoitzak-berak nai duan bezela ibili diteke, prozesi-eraz egiten ez diran sartu-ateratan, naiz oñez, naiz zaldi-gurdian, naiz *tranbian*, naiz *automobilan*.

12. *Eliza bat besterik ez dan erian nola egingo dira egun bakoitzeko lau sartu-aterak?*

Egun bakoitzeko sartu-aterak, Obispo Jaunaren aginduz danak eliza berean egin bear diranean, ez da naikoa bein Elizan sartu ta otoitz guztiak era bat esatea; lenengo sartu-aterakoak esan eta atera egin bear da, ta beñiz ere sartu, bitgafengoak esan eta atera beñiz ere; eta ofela danak.

13. *Eliz-sartu atera egin alditeke iñoiz, eliz-bañura sartu gabe?*

Ezin sartu-ala jende izanda Elizan sartu gabe gelditzen danak atetik otoitz egitea naikoa du; bañan daudenakin bat egiñik bait-dago bera ere; eta Elizako ateak itxirik ba'daude, beñiz sartu-aterarten orde *bisita* egin diteke ate-ondotik edo ate-aufeko ari-mala edo eskaleraetatik.

*Begira*: Sartu-aterak prozesioan egiten diranean, eriko Bikario edo Eñetore Jaunak edo añen ordekoak nai badu, bost eguneko sartu-aterak gutxitu ditezke, gero ikusiko degun bezela.

14. *Sartu atera bakoitzean Aita Santuaren nai ta asmoetarako otoitz egin bear da.*

Aita Santuaren aurtengo asmoak, Eñomako Jubileokoak berak dira.

a) *Sinismena zabaltzekoa;*

b) *Erien arteko pakea ta batasuna;*

d) *Palestinako, katolikoan eskubidea.*

15. *Nai-ta-naiezkoa al-da Aita Santuaren asmo oiek gogoan euki beara sartu-ateratako otoitzetan?*

Ez da nai-ta-naiezkoa asmo oietako bakoita gogoan eukitzea; naikoa da era bat, onela diranak dirala, *Eroma'ko Aitaren asmoetarako* edo bestela *Jubileoan agindurik dauden gauzetarako*, zein zein dan gogoratu gabetanik otoitzak eskeintzea.

16. *Nolakoa izan bear du Eroma'ko Aitarentzat egindako otoitzak?*

Aita Santuarentzat egindako otoitzak oia nolakoak izan bear duan:

a) Nor-berak nai duana, bañan *aozkoa*. Bost Aitagure eta bost Agurmaria naikoak dirala diote jakintsuak, edo bestela bost Aitagurek ainbat iraun oi duan beste zeinbat otoitz.

Esan ditzake, naiz nor-berak bakarik, naiz batek esan ta besteak erantzun.

Ez da liburuetan ofetarako dauden otoitzak esan bearik; obe, bai, obe da Obispo Jaunak emandakoak esatea. Mutuak asko dute *gogozko* otoitza egitea, edo besteakin batean Elizan belau-niko egon naiz beste zerbait ofelako egin edo liburuaren batetik zerbait irakurtzea.

b) *Jubileoko otoitzak ez du izan bear bestela agindurik daudenetakoa.*

V. gr. Otoitzen batzuek egiteko agindua edo *promesa* daukanak ez du Jubileoa irabazteko naikoa agindutako otoitz ura egitea; beste otoitzik egin bear du nai-ta-naiez. Apaizak eta *praileak* eta *monjak* ere ez dute Jubileorako asko Brebiario'ko otoitz-aldia.

Ala ere naikoa izango da Aitortzaileak *penitentziz* ezafitako aozko otoitza, bost Aitagure ta bost Agurmari anakoa izanez-kerro (1).

### Oafak

1'goa. *Oso gaxorik* ez dauden guztiak nai-ta-naiez aitortu ta jaunartu bear dute Jubileoko barkapenak irabaztekotan: *oso gaxorik* daudenak, ordea, irabazi ditzakete, bi sakramentu oiek artu gabe.

(1) Can. 932.

2'gna. Ezaguearik ez duten UMEAK, ez dezakete Jubileorik irabazi (zazpi urtetan asten da ezaguera gutxi gora bera); eta zazpi urte ez izan afen, igefiko ba'liote umeari naiz gurasoak, naiz aitortzaleak edo efiko apaiz nagusiak, naiz maisu edo erakustzaleak, pekatu txiki bat ere (1) egiteko ezaguerarik asko ba' duala, LENENGO JAUNARTZEA egiteko presta dezatela.

Eta ala ere Jubileoa irabazteko ez du asko izango Pazkuzko Jaunartzea, beste edozeñek bezelaxe berak ere *beñezkoa bait-du Pazkuz egitea*; Pazkuzkoaz gañera beste Jaunartze bat egin bear du Jubileoa irabaztekotan.

3'gna. Jubileoa irabazteko agindurik dauden egitekoetan azkenekoa *Jaunaren grazian* egin bear da; beragatik ofetako aitortu ta gero Jaunartu baño lenago pekatu lafiren bat egin duanak, Jaunartzeko beñiz aitortu egin bear du; bañan ondo jaunartu ondoren Jubileoko azkeneko eginkizuna baño lenago beñiz pekatu lafiren bat egiten duanak asko du maite-damuz damutzea azkeneko eginkizuna baño lenago.

### III

#### Elizara ezin joan ditezkenentzako

17. *Egin bear al dituzte agindurik dauden gauza guzti ofek, beren bizi-bidez edo miñez edo beren egitekoaz Elizara ezin joanik arkitzen diranak ere?*

Elizara ezin joanik arkitzen diranentzat efuki aundia izan du Efoma'ko Aitak: agindurik dauden gauza guztiak egin gabe irabazi zezaketen olakoak lengo urte ortan Efoma'ko Jubileoa; baita aurten ere irabazi dezakete mundu guztikoa.

Itxasoan edo legofez ia urte guztian ibilian dabiltzanak, gañerako egin-beñak egifiekero, naikoa dute EGUN BATEAN, DAUDEN ERÍKO ELIZA NAGUSIAN BOST SARTU-ATERA egitea, jubileoko eskubide guztien jabe izateko.

(1) Ala dio Eliz-legeak zer esan nai duten erabakitzeke dagon Kardena Jaunak.

Mala onetan daude, joan-etofiko eta geñako ontzietako itxasgizonak, ibilian dabilzan mertxero edo *biajanteak*, trenetako mukina-zai ta gañerako serbitzariak etab.

Ez ordea iru edo lau ilabeteko joan-etofi bat egiten dabilzanak.

Oietaz gañera ba'dira elizan joan eziña gutxi edo geiago daukaten beste batzuek ere: elizara joan beaña, oso edo pixka bat badegu, kendu dizaieke olakoeri ere ofetarako eskubidea ta egin-tea duan edozeñek.

Maia onetan daude, *A) Monja* guztiak, naiz dotedunak, naiz dote-gabeak, eta etxe-bafuko irugañendafak;

*B) Sorora-antzera* komentuetan bizi diran emakumeak, monjaen ikastetxeetan bizi diran *nexkatilak* eta karidadez edo eziordez beartsutegietan edo olako beste etxeren batean bizi diran emakumeak.

Maia onetan daude *gau ta egun* naiz monjaen naiz bestelako ikastetxeetan daudenak eta egun guztia olako ikastetxean egonda gero *lotara bestetara, beren etxera joaten ez diranak*; eta ikastetxe oietan bizi diran erakusle ta serbitzariak.

*D) Anakoretak* eta otoitzezko bizieran beti etxe-bafutian egoten diran praileak: Trapatafak, Kamaldulatafak eta Kartujatafak.

*E) Presondegietan daudenak eta emmendationis causa*, ofetarako etxeren batean, agintarien aginduz dauden apaiz eta praileak.

*F) Beren etxean edo gaxotegiren batean mintxu edo gaxorik daudenak*; eta olakoak zaitzen egoten diranak gañera.

Ofetarako, luzaroan, elizara ezin joateko añan miñez egon bear da, edo ta gaitzak senda eziña izan bear du, edo bestela gaxoak oso gaizki egon.

Gaxo-zai dauden praile naiz bestelako, etxeko naiz afotzak, geienetan gaxoakin ba'daude, elizara ezin joana dakatentzat joizen dira aiek ere.

*G) Egunero esku-lanetan dabilzanak, ofenbeste egunetan ofenbeste ordu galdu ez ba'ditzakete*, elizara ezin-jonean daude aiek ere.

*Sacra Pœnitentiaria Apostolica*'k dionez ez daude mala onetan lantegi txikietakoko nagusiak, efiko enpleodunak, sendagiñak, eskribitzale beartsu xamafak etab.

H) Irurogei ta amar urte bete dituztenak ere joan-eziñean daude.

I) Aizkenik Elizara joateko emen esan ez dan eragozpideren bat argi ta garbi dutenak ere.

Maña onetan eragozpide asko sartzen bait' dira; ofetarako eskubidea duanak erabaki bearko du nork daukan eta nork ez.

Eziñean arkitzen diran guztiak (A-I) adierazi bezaiote, naiz aitortzekoan, naiz bestela, beren aitortzaleari, naiz Bikario edo Efetore Jaunari, naiz Artzipresteari, (komentukoak beñiz beren Nagusiari) naiz Obispo Jaunari berari eta Obispo Jaunaren eskutik eta bere izenean edozeñek gutxituko dizkio bestela egin bearko lituzken elizako *sartu-aterak*, eta sartu-aterak egiteko *egunak*.

Sartu-aterak eta egunak gutxitze au era askotan egin diteke: naiz egun bakoitzean bestela baño geiago, naiz gutxiago ta egun geiagotan, naiz guzitara gutxiago eragiñaz, naiz sartu-ateraren ordañez, beañez egitekoa ez dan beste zerbaít gauza on edo otoitz edo limosna egiñaziaz.

Ez da, beraz, ordañetarako naikoa Igandeko Meza, ez ta apaizkientzat Brebiarioko eguneroko *erezoa* ere, ez eta barau-eguneko beañezko baraua ta beste olakorik ere.

## IV

### Jubileoko sartu-aterak prozesio-eran.

19. Joan dan urteko Pelegrinazio edo Efomerietan pelegriariak Efoman'n kalerik-kale prozesioan ikustea edertasun aundiz zalako, ofela elizatxo sartu-aterak prozesioan egiten zituztenai efexki ematen zieten Aita Santuaren oñordekoak, sartu-atera gutxiago egiteko eskubidea.

Aurten ere edertasun ofi ondo iritxirik, Efomako Aitak eman die Obispo Jaun guztiai, berak berenez edo besteren bitartez, sartu-



aterak prozesio-eran egiten diranean, bestela baño gutxiago egin al izateko eskubidea.

20. *Zeñentzako da eskubide au?*

1) Elizak aintzakotzak dauzkan *apaiztegi* ta *prailetegi*entzako (maña onetan daude Katedral'eko Kanonigotegiak eta gizonezko komentu edo prailetegiak etab.)

2) *Eleiz-Kofradiak*, *Eleiz-Batasunak* eta gizonezkoen naiz emakumezkoen *Lagunarte* katolikuentzat.

Maña onetan daude Irugañen Ordenak, eta beste onelatsuko Kofradi ta lagunarteak, Paul'eko San Vizente'ren Laguntzak, Bilerá-etxe Katolikuak eta Elizak ontzat emandako legez Katolikotasunarentzat lanean jarduten duten beste zeinbat lagunarte.

3) Ikastetxeetan bizi diran nexka-mutilentzat; edo an ez biziáren, egunero edo astean egun jakiñetan ara joan bear izaten dutenentzat.

Kanpotikako edo *externoak* ere maña onetan ote dauden nork-edo-nork galdetu zezakealako nunbait, Aita Santuak aipatu nai izan ditu *externoak* ere: beraentzako ere emanak omen-dira eskubide oiek. Eta erakusleak, eta ikastetxeko agintedunak ez aipatu-áren, ez da zer esanik aiek ere ikasle ta beren mendekoe-kin batean irabazi ditzatekela Jubileoko barkapenak; ikasleak bear bezala ibiltzeko erakusle ta gañerako agintedunak naita-naiezkoak bait-dira.

4) *Éretora* edo *Bikario Jaunaren* edo bere ordekoen baten mendean egiten diran sartu-ateratan dabilzan *guztientzat*.

*Onela egindako sartu-ateratan*, Jubileoa irabazten ibili ditek edozein, naiz eta Eliza artakoa izan ez; aurtengo Jubileoko Buldak ez du jartzen orain ogeitabost urtekoak bezela, nork bere Pafokoaren mendean ibili bear duala sartu-aterak egiten.

21. Ona zer dion Bulda ofek oraingoan danok batean egin bear dituzten sartu-ateraetaz.

« Obispo Jaunak gutxitu ditzakete elizako sartu-aterak, baño danok batean prozesioan ibiltzekotan, bestela ez; ez da ofetarako Jubileoko *domiña* edo ezaugafia ».

« Nola-nai dala, ofela, kalez-kale ibiltzeko eñeztasunik ez dan erietan, Obispo Jaunak edo beren ordekoak gutxitu ditzakete

» eliz-sartu-aterak; bañan beti ere eliz-bafuan edo inguruan da-  
» nok batean, prozesio-eran eta al dan aunditasun guztian ibil-  
» tzekotan; bestela ez ».

22. *Zenbat eratakoak izan ditezke, beraz, guztiok batean egiten dituzten eliz-sartu-aterak?*

Bitakoak: *Prozesiozkoak* eta prozesiorik gabe egindako *nagusiak*.

*Prozesiozkoan* guztiok banaka bi endanatan, edo pīlatxoe-  
tan biñaka, launaka etab. joan oi dira: apaizak besteengandik  
berex eta gizonezkoak ere bai emakumeengandik.

Prozesioan, al baldin ba'dute kalez-kale ibili bear dute (naiz  
*domina* ta ezaugaririk gabe) lkastetxeetakoak, Kofradietakoak  
eta Elizakoak etab. sartu-aterak gutxitzekotan.

Kalez-kale ibiltzerik ez dagonean, orduan elizan lekurik asko  
izanezkero bertan ibili bear dute danak prozesioan; ez da naikoa  
apaizak eta beste batzuek bakarik ibiltzea gañerakoak begira  
daudelarik.

Kalez ibiltzerik ez izatea gerta ditekete naiz eriko agintariak ga-  
lazirik daukatelako, naiz naspīlen bat sortzeko bildufagatik, naiz  
egualdi txafa dagolako edo ofela.

Kanpotik ibiltzerik ez eta bafutik ibiltzeko eliza txikitxoia du-  
tenak, sartu-ateratako otoitzak bertan, egonean, egingo dituzte,  
*danok batean* eta aunditasun eta ots pixka bat emanaz, Jauna  
agerian ipiñita edo, itz-alditxo bat egiñaz edo, zerbait kantu abes-  
tuaz edo, ofela. Otxek dira prozesio-gabeko *bisita nagusiak*.

Zeinbat eleizetan bi ate izanak efextasun aundia ematen du  
prozesioak egiteko.

## V

**Urte Santu onetan iritxi ditezken absoluzio  
ta azkespenak.**

23. Antziña-antziñatik izan da Elizan, zeinbait pekatu aundi  
barkatzeko eskubideak edozein apaizeri ez emateko oitura: pe-

katurik lañien jakin batzuek, Obispo Jaunak edo Aita Santuak bakarrik barkatu ditzazke. Ofela, barkatzen zail diralako, bakanago egingo dirala uste izan du Elizak eta alaxe gertatzen da.

Beragatik Jubileo urterako pozez egoten ziran antziñako kristauak, bestela zeinbat pekatu barkatzeko ufutietara joan bear, eta ibiltzea orain baño neketsuago bait'zan; Jubileo urtean beñiz pekatu aiek eñezago ta edozeñek barkatzen.

Orain, damu duan pekatariarentzat len ez bezelako eñeztasunak daude pekatu aparte edo bereizak ere barkatzeko. Ala ere ez dira galtzen-uztekoak Jubileo urtean ematen zaizkigun eskubideak.

Ez goaz emen eskubide oiek guztiak ezartzera. Beañean daudenak or dauzkate beren aitortzaleak: aiek esango diete on duten guztia.

Axal-axaletik bezela auxe bakarrik ezafiko degu emen.

1'go. Jubileoak dirauño, aitortzetarako ontzat emanak dauden aitortzale guztiak barka ditzakete *Jaungoikoaren auñerako* Aita Santuarentzat *speciali modo* aparta edo berexirik dauden pekatu ta *censura* guztiak.

2'gn. Uste oker guztiak baztarturik eta besteri jañitako gaitz-bidea ufaturik aitortzera datoñen *ereje* ta *masoiki* guztientzat ere eñeztasun aundiak daude.

3'gn. *Eleizari ondasunak keudu zizkiotenak* ere *absolutioa* izango dute aurten, kendutakoa biurtuzkero edo ofetarako alegiñak egiteko itza ematen ba'dute.

4'gn. *Monjak* ere, edozein bear-bezelako aitortzaleekin egin dezakete Jubileoko beren aitorketa; au-ez beste aitorketaetan *Codex Juris Canonici*'k erakutsiko die zer egin.

24. *Jubileoko aitortzaleak askatu al-ditzake Jaunari egindako agindu edo promesak?*

Aitortzaleak, bota edo promesaren ordez *penitentzi*-neke, limosna, naiz beste gauza onen bat egiteko aitortzen danari agindu-ta, askatu ditzake promesak eta *nork berak Jaunari* egindako boto edo aginduak, naiz juramentupekoak izan, naiz Eróma'ko Aitarentzat berezitakoak.

Ofela barkatu dezake, apaizgintzan egindakoa ez beste *nork-berak Jaunari* egindako garbitasun botoa; baita Prailetegi edo Monjategiren batean saritzeko, 18 urtezkeró baldin edo kondizio-rik gabe egindakoa ere.

Beste norbaiten alde egindako aginduak, beste norbait onek onetsizkero, ez ditzake inork askatu, berak nai ez baldin ba'du. Pekatuko bidetik iges egiteko egiten dan agindua askatzeko, agindutakoaren ordezt bide txar aretatik iges egiteko lengoa ainbat dan beste zerbait egin bear da nai-ta-nai-ez.

Aizkenik Jubileoko aitorketan barkatu ditezke, *Jaungoikoaren aurerako*, ezkonduzkero sortutako izkutuko eragozpenen batzuek; eta aldiren batean baita ezkondu aufetik sortuak ere.

Ala berean, apaiz bati apaizkintzarako gerta litzazkioken *ex delicto*'ko zeinbat gauza-ez edo *irregularidade* izkutuko ere.

Aitortzañe guztiak eskubide guztioien jabe dira-ta erabili ditzakete danak, Jubileo-urte onetan guztian, bear duten aldi guztietan, Jubileoa irabazteko asmoz benetan datozen guztiakin, baita gero asmoa aztu edo aldatu-ta eliz-sartu-aterarik egin gabe gelditzen ba'dira ere: bein ondo askatua ez bait-da beñiz lotzen.

---

---

## BIGAREN ERDIA

### Jubileorako Sartu-ateratako otoitzak.

Lenengo sartu-ateran Aldareko Jaunari agur egin bear zaio (1).

### LENENGO SARTU ATERA

#### *Gurutze Santuaren...*

Nere pekatu guztien damuz nago Jauna; gofoto diet guztiai: oien bitartez Zu nere Jaun Aundi ori asafetu-erazi zaitut, zure Seme Maite Jesus il det eta nere animaren gain kalte aundiak erakafi ditut. Ez det beñiro ofelakorik egin nai eta alde egin nai det gaizkirako bide galdu guztietatik. Jauna, ufikal zakizkit eta barka nazazu.

#### Gogoa zuzentzeko otoitza.

Emaiguzu Jauna zure laguntza, eta Jesukristo gure Salbatzailearen irabazien bitartez ta gure Zeruko Amaren, Aingeruen eta

(1) Bitori'ko *Boletín Eccos*'k bezela lpiñiko ditugu otoitz oiek (15-Feb. 1926).

Santu guztien eskariakgatik iguzu, aŕen, Urte Santu onetako barkabide edo induljentzia. Ofetarako gure Eŕoma'ko Aitarekin batean eta bere naia ta gogoa gure gogo ta nai egiñik, orain egitera goazen Elizako sartu-atera oiek eta gañerako egiteko on guztiak artu itzazu eskari bat bezela; artu bai, guztiok batean, gogo beroz ta uste osoz egiten degun eskari bizkor bat bezela. Eliza ta gutako bakoitza gero ta santuago egitea, mundu guztian pakea zabaltzea, lurzabaleko katoliku ez diran guztiak Elizan sartzea, eta katolikuok Jesus jaio, bizi ta il zan Leku Santu aietan ditugun eskubide guztiak osorik irautea: orixe da Eŕoma'ko Aitak nai duena ta guk egun Santu oietan eskatzen dizuguna. Amen.

*Bost aldiz Aita gurea, Agur Maria ta Gloria Patri, Eŕoma'ko Aitak Urte Santu onetan nai dituan gauzetarako.*

*Prozesiozko sartu-ateratan.* Apaiz Jaunen batek, Eŕoma'n egiten zan bezala, Jubileoak zertarako diran aditzera emateko itz-alditxo bat egin dezake orain.

Bukaeran abestu edo kantatuko da Salbea eta Elizatik ateratzean *Egizu zuk Maria gugatik eŕegu.*

## BIGAREN SARTU-ATERA

*Ebanjelioa'ren Beŕi Ona mundu guztian len-bailen zabaldu dedin.*

### *Gurutze Santuaren...*

#### **Aldareko Sakramentuari otoitza.**

Noraño eldu izan dan zuk, Jesus maitati ofek guri diguzun maitetasun [geiegia. Zere aragia ta odola ber-bera eman diguzu janari ta edaritarako: O jaungoikozko Aparia! Zerk ola zoratu zaitu, Jauna? Zure Biotz maitagafi ofek nunbait, eta ez beste ezerk. O Jesus'en Biotza, jaungoikozko maite su-gafez gugatik irazekia! Artu ezazu nere anima zure zauri eder ofetan, ainbeste

maite izan gaituan gure Jaungoikoa bear bezela maite izaten ortxe eskola ofetan, ikasi dezadan, Amen,

*Bost aldiz Aita gurea, Agur Maria ta Gloria Patri, Erroma'ko Aitaren asmoetarako.*

*Prozesiozko sartu-ateratan.* Emen egoki izango da Aldareko Jaunari *Adoro te devote* «Ogi zerutik» edo olako zerbait kantatzea.

### Ama Birjiñari.

Begira, gure Ama efukitsu Maria, ez dala egundaño entzun izan, zure deiez ta zure laguntza eskean etofi izan zaitzun iñortxori Zuk entzungor egin izan diozunik. Uste onetan sendoturik, Zure deiez nago ni ere garbi guztietan garbiena zeran Ama Birjiña, eta pekatupean makurturik egon-añen, ementxe nator lotsaz zure auñera. Ez añen baztartu nere eskari gaxoak, efukiz entzun itzazu baizik eta eman zaidazu eskatzen dizudana. Amen.

Elizatik ateratzean abestu edo kantatuko da *Jesus gure Jaun maite.*

### IRUGAÑEN SARTU-ATERA

*Mundu guztian pakea zabaldu dedin.*

### *Gurutze Santuaren...*

### Gogozko Jaunartzea.

Atoz Nere Jesus, ta sartu nere biotzean. Atoz, atoz len-bai-len. Nere anima zure egafiz dago; ezin egon diteke luzaroan Zu gabe. Ogi-antzean, egiazki aldarean zauden bezela ez bada ere, etofi zaitea gogoz, sinismenaren argiz or ikusten zaitudan bezela, nere biotzak, deizka, beregana erakafi nai zaituan bezela. Atoz, bai, etofi Jesus, eta bete ezazu nere biotza zure maitetasunezko ezti gozoaz...

Ementxe zaude nere biotzean... Nerea zera oraintxe nerea biotzeko Jesus, nere gozoa, nere on bakar-bakafa... Zu nerea, ta ni, naizen guzti au zurea; biok bat gera orain... Zer nai didazu? Zer eman dezaketzut? Naizen guzti au Zuretzat, Jauna, Ekatzu zure maitetasuna ta grazia, ta naikoa det. Amen.

*Bost aldiz Aita gurea, Agur Maria ta Gloria Patri Erromako Aitaren asmoetarako.*

*Prozesiozko sartu-ateratan.* Kantatu diteke *O Salutaris*, «Jaungoiko gizona» edo olako beste zerbait.

**Ama Birjiñari Otoitza.**

*XV Benedikto'k Pakea eskatzeko egiña.*

O Zeruko Jaunaren Ama Maria! Zu izan zera beti kristauek  
esperantza ta gorde-lekua: gēfateetan zu izan zaitugu guztiok  
gure pakezko Efégiña. Geñaren mendean gaude oraindik zure  
seme gaizuok; biurtu itzazu gugana bada, orain ere, pakezko  
eñañua darioten zure begi eñukiz bete oiek. Bildu bitza zure Se-  
me maitatia dan Jesus Efége Paketsuak, bildu, bai, artalde ba-  
tean, alkar besarkatu ta pakean bizitzeko ain zaleturik dauden  
gizon guztiak. Berak esan zuan iñork baño lenago «Zorione-  
koak paketsuak». Orain igafi diogu ederki zeñen gozoak diran  
itz oiek. Betorkigu lenbailen, Ama, Efége Paketsu ofen eñeinua.  
Amen.

**Elizaren Zaindari Nagusia dan Jose Santuari otoitza**

Gizon zintzua goratua izango da ta Jaunaren Zaitzailea ain-  
izatua.

V. Otoitz egizu gure alde, Jose Santua.

R. Jesus'en aginduak iritxi ditzagun.

*Otoitza.*—Lagun eiguzu, añen, Jauna, zure Amaren Ezkonti-  
dea dan Jose Santuaren irabaziakgatik, gure indañak ezin duana  
bere bitartekotasunez opa dizaiguzun, Espiritu Santuarekin ba-  
tean beti ta beti Jaungoiko bizi-bizia ta aginteduna zeran ofek.  
Amen.

Elizatik ateratzean abestu edo kantatuko da *Jaungoiko Santua*.

**Aita San Prantzisko'k Aldareko Jaunari  
egiten zion otoitza.**

Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu Zu, Kristo gure Jaun ori, emen  
eta lur-zabalean dituzun eliza guzietan; gizadia zure gurutzearen  
bidez biferosi zendualako

*Bost Aitagure, Agur Maria ta Gloria Aita Santua-  
ren asmoetarako.*



## LAUGAÑEN SARTU-ATERA <sup>(1)</sup>

### *Palestina'ko Leku Santuak zuzen-bideratzeko.*

Jauna agirian jafita bost Aita gure.

V. Otoitz egin dezagun gure Aita Santu Pio'rentzat.

R. Jaunak gorde dezaigula eta indartu ta mundu onetan zoriontsu egin dezala, eta ez dezala añen etsaien eskuetan utzi.

Otoitz onen ordez latiñez kantatu diteke, *Oremus pro Pontifice nostro Pio.*

### San Prantziskoren Otoitza.

Mundua otzik zegonean, gure biotzak zure maite-sutan irazekitzeagatik Prantzisko Santuaren gorputzean zure bost zauriak beñitu izan zenituan Jesus Jauna; bere irabazi ta bitartekotasunaren bidez eman eiguzu añen guk ere gurutzea beti eramateko ta ta penitentzi-nekez geren buruak ondo ornitzeko zure laguntza Beti-betiko Efege Bizia zeran ofek. Amen.

### Gotzaga'ko Luis Santuaren otoitza.

Aingeruzko gazte Luis Santuagan bizitza erugabe-efugabea afigañizko nekezaletasunakin bat egin izan zenduan Jaungoiko doai-emale ofek, iguzu, añen, bere bitartez eta bere irabaziakgatik efugabean jafaitu ez diogunezkero penitentzi-neketan jafai-al-izatea. Kristo Gure Jaunagatik. Amen.

Aizkenean *Tantum ergo*: ta, Jauna gorde ondoren, *Bedeinka bedeinka ta Laudate.*

A. M. D. G.

NIHIL OBSTA  
Victoriae, die 30 Martii  
Lic. Romanus Laspi  
Censor.



(1) Bitori'ko *Boletín Eccos'*k dakazkianaz gafierra, San Prantzisko're San Luis'en Kofradi edo Lagunarteak diran lekuetan, egoki izango d'otoitza olek egitea.